



elkarkidetzak

12.zk. 2006 ABENDUA

titularrak

Errenta aldagarriak eragina izan du ekitaldiko emaitzan

..... 7. orr.

Web orria: erretiro-pentsioen autokalkulua


..... 8. eta 9. orr.



ZERBITZUAK

Bizi-aseguruaren eta ezintasun-aseguruaren onurak


..... 2. orr.



EUROPA

Lisboako Biltzarra: pentsioen fiskalitatea

..... 3. orr.



editoriala

Suedia, pentsio-sistemen eredua

Elkarkidetzako ordezkariak eta KPAk, Suediako udal-langileen pentsio publikoak zein osagarriak kudeatzen dituen erakundeak, izan berri duten lan-topaketan, egiaztatu egin da bi erakundeetako pentsio-ereduek

antzeko kalitate-faktoreak dituztela. Antzekotasun horiek, beraz, balioa eta sendotasuna ematen dizkiote Elkarkidetzak defendatzen duen pentsio-ereduari, eta eredua hobetzen jarraitzeko gogoia pizten digu.

www.elkarkidetzak.net

© Elkarkidetzak EPSV.
e-mail: elkarkidetzak@elkarkidetzak.net
ARABA. Ramón y Cajal 7 eta 9. 01007 VITORIA-GASTEIZ. Telf.: 945.14.11.41
BIZKAIA. Gardoki, 2 etxabea. -48008 BILBAO Telf.: 94.415.55.78
GIPUZKOA. San Martín, 2-20005 DONOSTIA. Telf.: 943.43.02.56

Bizi-aseguruaren eta ezintasun-aseguruaren onurak

Aurten ere, Elkarkidetzak, Aviva Vida-Pensionesek eta Alkorak sinatutako hitzarmenari esker, aseguru-sarien kostua murriztu dute aseguratutako instituzioek.

Gure erakundearen bidez bizi-asegurua eta ezintasun-asegurua euren langileen-zat kontratatuta dituzten instituzioek onurak lortu dituzte berriro, Elkarkidetzak Aviva Vida-Pensiones aseguru-konpainiak eta Alkora aseguru-artekaritzak sinatuta-ko hitzarmenari esker.

Hitzarmenean, oso kontratazio-baldintza abantailatsuak zehazten dira instituzioentzat. Hala ere, talde handietan baino ez dira ezartzen. Lehenengo eta behin, tarifa murriztuak, lehiakorrak eta nahikoak eskaintzen ditu, taldea behar den moduan ibili dadin ezbehar-tasaren orekaren barruan. Horrez gain, elkarta-

sun-politika sustatzen duenez, aseguratutako 7.500 bazkide dituzten 240 instituzioi talde bakarra balira bezala jarduten dute. Azkenik, bermatu egiten du aseguratutako instituzio bat ere ez dela polizatik kanpo geratuko aseguruaren sektorean ohikoa den ezbehar-tasagatik.

Hitzarmenaren abantailen artean, nabarmendu behar da aseguratutako talde osoaren ezbehar-tasarik ezaren emaitzen arabera instituzioei zenbatekoa itzultzen zaiela "mozkin-partaidetza" moduan eta ordaindutako sarien araberakoa dela.

Zentzu horretan, 2005ean, instituzioei "mozkin-partaidetza" moduan itzultitako zenbatekoa 131.675 eurokoa izan denez, ordaindutako sarien kostua %10 murriztu da.

Era berean, Elkarkidetza mutualistek eta euren senitartekoek (ezkontideek eta seme-alabek) banan-banan lortu ahal izango dituzte bizi-aseguruaren eta ezintasun-aseguruaren tarifa bereziak, aurreikuspen-sistemaren bitartez jasotzen dituzten estalduren osagarri garrantzitsuak dira eta.

Datu osagarriak

| | |
|--|----------------|
| Poliza Berezira atxikitako instituzioak..... | 240 |
| Aseguruak estalitako langileak..... | 7.500 |
| Sarien zenbatekoa..... | 1.393.378 euro |
| Instituzioei "mozkin-partaidetzagatik" itzultitakoa..... | 131.675 euro |

Ikasleentzako egoitza berria Donostian

Urriaren 6an, Gipuzkoako Unibertsitate Campusean ireki zen Elkarkidetza SIRESA Euskadi, S.A. sozietatearen bidez ikasleentzat sustatu duen hirugarren egoitza.

Irekiera-ekitaldian, unibertsitateko bizi-asegurua eta euskal politikako pertsona ezagunek parte hartu zuten, bai eta Manuel Agud Querolaren familiak ere. Agud Euskal Herriko Unibertsitatearen sustatzailea eta euskal kulturako erreferentzia izan zenez, bere izena jarri diote egoitzari.

SIRESA sozietateko presidentek, Jon Zabaliak, bere agerraldian nabarmendu zuenez, Unibertsitateko Campuseko eskaintza integrala izan behar da, eta, bertan, ikasleen egoitza orokortasun horren adierazgarri izan behar da, sorterritik urrun ikasi behar duten guztientzat. Gaur egun, ikasleentzako egoitza bat daukagu Unibertsitate Campus bakoitzean, eta guzti-guztiak SIRESA Euskadi sozietatearen bitartez sustatu dira.

Horiek horrela, 2001. urtean, Tomás Alfaro Fournier egoitza ireki zen Arabako Campusean; 2004. urtean, Blas de Otero

egoitza, Bizkaiko Campusean; eta orain, Gipuzkoako Campusekoa. Azken egoitzak 260 logela eta 300 ohe eskaintzen ditu.

SIRESA Euskadi sozietateak ikasleentzako egoitzen kudeaketa garatzen du Euskadin, eta honako hauexek dira partaideak: Elkarkidetza (sozietatearen kapitalaren %60), RESA (egoitzak kudeatzen dituen sozietate frantsesa), Catalana de Occidente aseguru-konpainia eta Caisse higiezin enpresa.

Prestazioak eta zerbitzuak

Euren prestazioei eta zerbitzuei begira, egoitza hauek oso berritzaileak izan dira, unibertsitatearen gaur egungo eta etorki-

zuneko eskariei erantzuteko orduan, intimitatean, askatasunean eta erosotasunean oinarritutako ostatu-kontzeptu berria eskaintzen dutelako. Horrez gain, udan bertan ere alokatu daitezke logelak, Bilbon eta Gasteizen egiten duten bezala. Eskaintza interesgarria denez, emaitza onak izango ditu Donostian.

Irekiera-ekitaldian adierazi zuten bezala, apartamentuek eskaintzen duten banakotasunarekin eta ikasleen egoitza nagusietako taldetasunarekin bat gatoz.



Gizarte-aurreikuspena Suedian

Suediako aurreikuspen-sistema Europako gizarte-segurantzaren sistema guztietarako erreferentea izan da, eta, horrez gain, ongizatearen estatuan imitatu beharreko eredua ere izan da.



Elkarkidetzako ordezkariak, KPAko zuzendaritzako kideekin.

1950eko eta 1960ko hamarkadetan, aurrekaririk gabeko hazkuntza ekonomiko gertatu zenean, zerga bidez finantzatutako gizarte-ongizatearen munduko sistema zabalena sortu zen Suedian. Harrezkero, sektore publikoak bere hiritarren segurtasun ekonomiaren gaineko erantzukizunaren zati handiena hartu du bere gain. Horrez gain, 1998ko ekainean, arauketa berria hitzartu zen oinarritzko sistemaren eta pentsio-sistema osagarriaren ordez ezarriko diren zahartzaro-pentsioetarako. Sistema 1999ko urtarrilean jarri zen abian, eta pentsio berrien ordainketa, 2001. urtetik aurrera.

Eredu hori ezagutzeko asmoz, uztailean Elkarkidetzako Gobernu Batzordeak eta Fondoko Batzorde Betearazleko kideek

lan-bisitaldia egin zuten KPA erakundera. Gu bezala, erakunde hori Sektore Publikoko Pentsio Erakundearen Europako Elkar-
tea (SPPEEE) kidea da, eta Suediako udal-
langileen pentsio publikoak zein osagarriak kudeatzen ditu.

Suediako pentsioak

1. zutabea. Suediako ereduan, Gizarte Segurantza publikoaren oinarritzko estalduran edo lehenengo zutabean, hiru pentsio-mota daude:

1- "Diru-sarrerren pentsioa". Ekarpen mugatukoa da, biziarteko urteko pentsioa eskaintzen du eta banaketa-sisteman oinarrituta dago. Erretiro goiztiarra 61 urte betetzean gertatzen da. Pentsioak inflazioaren eta benetako soldaten hazkuntzaren zein zehaztutako erreferen-

Pentsio publikoak

1. Diru-sarrerren pentsioa. Biziarteko urteko pentsioa. Erretiratzeko gutxieneko adina 61 urtekoa da.
2. Sarien pentsioa. Enpresako fondo-etakoa edo fondo pribatuetakoa. Derrigorrezkoa eta fondo publiko-
en bidez finantzatutakoa.
3. Onetsitako gutxieneko pentsioa. Pentsio publikorako eskubiderik ez dutenentzat, euren egoera zibila-
ren arabera. Estatuko aurrekontu-
tuen bitartez finantzatutakoa.

Sektore publikoko pentsio osagarriak

PFA. Udal-langileen arteko talde-hitzarmena. Erretiro, alarguntza eta zurtasunagatikoko prestazioak.
KPA. Udal-langileen PFA Hitzarmena kudeatzen duen erakunde.
AFA. Hitzarmen kolektiboetan oinarritutako aseguruak administratzen dituen konpainia: KPA, udal-
langileentzat, eta SPV, estatuko funtzionarioentzat.

tziako balioaren arteko aldearen arabera birbaloratzen dira.

2- "Sarien pentsioa". Derrigorrezkoa da, eta fondo publikoen, enpresako fondo-
en, sindikatu-
etako fondo-
en edo pentsio-
fondo-
pribatuen bitartez administratuta da-
go. Kapitalizazio-sistemari eusten dio, eta onuradunak askatasunez aukeratzen du erakunde kudeatzailea. Ezer aukeratu ezean, Sariak aurrezteko Fondoan inbertitzen da. Pentsioa biziartekoa da, 61 urte-
tik aurrera kobratu daiteke eta kalkulua errenta aktuariala da. Kotizazioak soldaten %18,5ekoak dira, eta berdin-berdin (%9,25) banatzen dira enplegu-emaileen eta soldatapekoen artean.

3- "Onetsitako gutxieneko pentsioa". Diru-sarrera gutxi edo diru-sarrerarik ez daukatenean jasotzen dute, beti ere oinarritzko pentsiorako eskubiderik ez badute. Zenbatekoa desberdina da egoera zibila-
ren arabera. Estatuko aurrekontuaren bi-
dez finantzatzen da.

2. zutabea. KPAk tokian tokiko funtzionarioen prestazio osagarriak kudeatzen

Suediako eredua

- Negoziaketa kolektiboaren emaitza da.
- Solaskideak sindikatuak eta enplegu-emaileen erakundeak dira.
- Prestazioak biziarteko errenta moduan jasotzen dira.
- Ekarpena mugatua da.
- Derrigorrezko sistema da.
- Erretiroagatik eta heriotzagatik (zurtasunagatik eta alarguntzagatik) prestazioak daude.

KPAren datuak 2006an

| | |
|----------------------------|-------------------|
| Kudeatutako ondarea..... | 4.000 milioi euro |
| Administrazio-gastuak..... | %0,72 |
| Kideak | 1.000.000 |
| Enplegu-emailak | 1.000 |
| Langileak | 361 |

ditu, eta langileek zein tokian tokiko agintariek sinatutako PFA hitzarmenaren bitartez onesten dira. Langilearen soldatan pentsio izan daitekeenaren %60-70en baliokidea da.

Honako hauexek dira prestazio osagarriak:

- **Zahartzarora.** Bertan, lanbide-bizitza osoan lanetik etorri diren diru-sarrerara guztiek pentsiorako eskubidea emango dute. Pentsioa urteko errenta moduan kobratuko da, eta errenta aktuarialaren arabera kalkulatu da sexu-bereizkeriarik egin gabe. Erretiratzeko adin goiztiarra 61 urtekoa da. Pentsioaren ehunekoak pentsio izan daitekeen soldata-mailaren arabera dira, 36.712 euroko soldatik aurrera, prestazio publikorako muga da eta.

- **Alarguntza.** Pentsio izan daitekeen soldata-mailaren arabera da, eta bost urteko epean ordaintzen da gehienez ere.

- **Zurztasuna.** Pentsio izan daitekeen soldata-mailaren arabera da, eta 18

urte bete arte ordaintzen da.

Enplegu-emailak aseguru-saria ordaintzen du, osasun-laguntzari eta gaixotasunari aurre egiteko. Aldi berean, ordainketak berreskuratzeko estalduradun aseguru egin daiteke (aseguruaren balioa bizirik daudenei ordaintzen zaie, aseguratutako epealdian hilez gero, eta pentsioa txikiagoa da), bai eta familia-estalduraren bat ere.

Alde horretatik, KPA sektore publikoko merkaturako liderra da. Gutxi gorabehera milioi bat langile dituzten 1.000tik gora enplegu-emailak dira bere bezeroak.

KPA, sektore publikoko liderra

Lan Merkaturako Aseguru Konpainiak, AFAK, hitzarmen kolektiboetan oinarritutako aseguruak administratzen ditu. Besteak beste, SPV eta KPA daude erakunde horren barruan, eta estatuko langileentzako zein udal-langileentzako hitzarmen kolektiboetan oinarritutako pentsioak administratzen dituzte, hurrenez hurren.

Suediako pentsio-fondoak aseguru-konpainiek kudeatzen dituzte. Bertan, gainera, kideek urtero askatasunez erabaki dezakete nork kudeatuko duen euren ondarea lehenengo zutabeen zein bigarrenean. Konpainien arteko lehia handi-handia

da (balioztatuta egon behar dira). KPAk berezia izan nahi duenez, segurtasuna ez ezik, gizarteari begira arduratsuak diren inbertsioak eta inbertsio etikoak ere eskaintzen ditu. Inbertsioa kode deontologikoaren arabera egiten da, eta, bertan, inbertsio-irizpide positiboak zehaztuta daude: zero tolerantzia armen, tabakoaren, alkoholaren... sektorean. Enpresetako lan-baldintzak kontrolatzen dira, ingurumenaren arloko kontrolak egiten dira...

Nabarmendu behar da Elkarkidetzako ereduaren eta Suediako ereduaren kalitate-faktoreak oso antzekoak direla:

- **Negoziaketa kolektiboaren ondorioz** sortzen dira.

- **Negoziaketa kolektiboan zehaztutako** ekarpenak derrigorrean bete beharrekoak dira bi alderdientzat, hau da, langileentzat zein instituzioentzat.

- **Pentsioak biziarteko errenta moduan** baino ez dira ordaintzen.

- **Erretiratzeagatik** prestazioen estaldura eta heriotzagatik arrisku-estaldura eskaintzen dituzte, bai eta azken horren eratorriak diren alarguntza eta zurztasunekoak ere.

Funtsezko antzekotasunak direnez, gure erakundearen ezaugarri bereizgarriak dira. Gizarte Segurantzaren pentsioen euskarria izan behar da oraindik, eta Laneko Aurreikuspen Erakundeek erretiratzean edo ezindu geratzean edo hiltzean gertatzen den murrizketa ekonomikoari aurre egin behar diote. Euren izenak adierazten duenez, pentsio-osagarriak biziarteko errenta moduan kobratuko dira ezinbestean.

Hori guztia dela eta, are sendoagoa eta baliozkoagoa da Elkarkidetzak defendatzen duen eredu, eta lanean jarraitzeko adorea ematen digu, bazkideentzako zerbitzu onenaren bitartez prestazio onak lortzeko eta Euskal Sektore Publikoko langile guztientzako pentsio osagarriak erdiesteko.

Inbertsio-zorria

| | |
|--------------------------|-----|
| Errenta aldagarria | %26 |
| Errenta finkoa | %74 |
| ■ Suediako bonuak | %75 |
| ■ Europako bonuak | %15 |
| ■ Amerikako bonuak | %10 |



Kalitatea kudeatzeko eredua



Kudeaketa Planeko lan-taldearen bilera.

Kalitatea Kudeatzeko Planaren lehen zatian, mutualistei eskainitako zerbitzua hobetzeko lehentasunezko proiektuak antzeman dira. Lan hori amaitu ondoren, bigarren fasea garatzen ari gara, eta, bertan, ezarpen-egoera desberdinean dago proiektu bakoitza.

Azarotik, gainera, beste bi dinamizazio-prozesu jarri ditugu abian, baliabi-

deen kudeaketari eta merkataritza-erlako kudeaketari dagokienez, eta 2007ko bigarren hiruhilekoan izango ditugu amaituta.

Une horretan, helburu berriak zehazteko asmoz, Kalitate Planean ordura arte lortutako emaitzen balioespen xehea egin behar badugu ere, erakundearen barruko funtzionamendurako ereduak au-

Kalitate Plana

- Lehentasunezko proiektuen identifikazioa:
 - Erakundearen garapenari eta funtzionamenduari buruzko azterketa eta balioespena
 - Sustapen-ardatzen identifikazioa
 - Abian jarri beharreko proiektuen zehaztapena
- Lehentasunezko proiektuen hedapena eta ezarpena:
 - Proiektu bakoitzerako lan-taldearen eraketa
 - Lanen plangintza
 - Jarraipen-sistemaren ezarpena
- Abian dauden lan-taldeak (hobekuntza-taldeak):
 - Kudeaketa Plana
 - Etengabeko Hobekuntza
 - Prozesuen Mapa
 - Barruko eta Kanpoko Komunikazioa
 - Baliabideen Kudeaketa
 - Merkataritza-erlako Kudeaketa

rerapen handiak izan dituela esan dezakegu dagoeneko. Horren ondorioz, bazkideen onurarako izango da.

Komunikazio Taldea

Komunikazio Taldeak komunikazioa apurka-apurka hobetzeko planeko bi arlo lantzen ditu. Batetik, Intranet eguneratu da. Barruko kudeaketarako tresna da, eta erakundeko langileen eta sailen lanari ahalik eta etekin handiena ateratzea dauka helburu. Horren ondorioz, bazkideen mesederako ere izango da. Bestetik, Elkarkidetzaren web orria berritzen ari gara, atal "publikoa edo irekia" zein bazkideentzako atal pribatu-

ko edo ezintasunagatikiko prestazioak kalkulatzeko.

Web publikoari edo erakundearen web-erari dagokionez, artikulua honetan aurreratu ditugu web orri berriaren zenbait ezaugarri, eta, 2007. urtearen hasieran, sarean egongo da abian. Aldaketa handiak izango dira edukiei, diseinuari eta funtzionamenduaren egiturari begira.

Oro har, web orri berria egiteko orduan, edukia erraztu da, gaur egungo diseinu erakargarria bilatu da eta web orriko atalarako sarbide errazak bezain azkarrak ezarri dira. Horrez gain, atal eta esteka berriak egongo dira, bai eta irisgarritasuna lortzeko beharrezkoak diren osagai teknikoak ere, web orria edonork erabiltzeko modukoa izan behar delako, bere baldintza fisikoak edo psikikoak edonolakoak direla ere.

Bazkideentzako "Interneteko Bulegoa" atala berezia izango da. Erakundearekin zuzenean harremanetan jartzeko modua izango da, eta, horrez gain, egoera pertsonalari buruzko informazio guztia eskainiko du, bai eta Aurrezki Planeko datu ekonomikoei buruzkoa ere. Bestetik, simulagailuak egongo dira, erretiroagati-



ko edo ezintasunagatikiko prestazioak kalkulatzeko.

Hori guztiori kontuan hartuta, web orria komunikaziorako oinarrizko tresna izango delakoan gaude, bai oinarrizko informazioa lortu nahi dutenentzat, bai Elkarkidetzako Aurreikuspen Sistemari buruzko eza-gutza xeheagoa eduki nahi dutenentzat.

Errenta aldagarriak eragina izan du ekitaldiko emaitzan

Urteko sasoi honetan, gure inbertsioen emaitza ekonomikoei buruz galdetzen dugunean, ez dugu behar den moduan jokatzeko azken finantza-gertaeren eta kudeaketaren azken emaitzen arteko lotura ezartzen saiatzen garelako, aurreikuspen guztien kontra burtsak eta, batez ere, Ibex indizea nabarmen igo direla jakin ondoren.



Egitateen zatikako ikuspegiaren eraginez, ez dugu ahaztu behar nola bizi izan dugun hilabetez hilabete merkatuen bilakaera eta zeintzuk izan ziren hasierako suposamenduak 2006ko urtarrilean, urterako inbertsioen plangintza euren arabera zehaztu baitziren.

Lehenengo eta behin, berme osoz eta erakundeak epe ertain eta luzera onartutako politikaren arabera gure inbertsioaren helburu diren aktiboen zentzuzko etekin-aurreikuspenekin bat datorren errentagarritasun-helburua zehazten dugu ekitaldiaren hasieran, gaur egun eta etorkizunean bazkideekin ditugun bete-beharrei aurre egin ahal izateko.

2006. urterako aurreikusitako errentagarritasuna txiki samarra zen. Inflazioa nolabaiteko marjinaz gainditzea erabateko erronka zen, 2005. urtean zehar munduko burtsak (AEBetakoak izan ezik) ikaragarri birbaloratu zirela eta tasak

ezinbestean igo egingo zirela kontuan hartuta. Errenta aldagarriko aurreikusitako emaitzak ez zihoazen %7tik baino haratago, dibidenduak kontuan edukita. Errenta finkoari dagokionez, BGAEtako eta pentsio-fondoetako inbertsioen zati handi baten etorkizuna txarragoa zen, taseen igoerak eragin kaltegarria izango zuelako errentagarritasunean, inbertsioaren iraupenaren ondorioz.

Aktibo nagusien artean, likidezia baino ez zitzaigun geratzen. Errentagarritasunak txiki-txikiak ziren ekitaldiaren hasieran, baina Europako Banku Zentralak iragarritako tasa-igoera euren mesederako zen eta ez zeukan inolako iraupen-arriskurik. Zentzu horretan, merkatuek aurreikuspenak bete dituzte, errenta aldagarriak izan ezik.

Gaur egun, errenta finkoaren errentagarritasunak zerotik hurbil edo zero azpitik daude, tasek gora egin dutelako eta epe luze zein laburrerako taseen arteko marjina murriztu egin delako, interes-taseen merkatuaren portaeraren ondorioz. Epe laburreko posizioen mesederako izan da, beraz.

Elkarkidetzak urtearen hasieran adierazitako beldurraren arabera, burtsak 2005.

Gobernu Batzordeko aldaketak

Lourdes Martínez de Lagos José Luis Ramos Garcíaen ordezkoa izango da, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritzan.

Gobernu Batzordea

Presidente Exekutiboa

Jon Zabalia Lezamiz

Presidenteorde Exekutiboa

Amaia Aldasoro Iturbe

Idazkaria

Koldo Tellitu Mejia

Batzordekideak

Josu Abaunza Martínez
Luis Manuel Agirre Elustondo
Amaia Altube Galdos
José M^a Endemaño Arostegui
José M^a Galarraga Uriarte
Rafael Ibagüen Gonzalez
Ignacio Lakunza Anton
Lourdes Martínez de Lagos
Ohian Ostolaza Arruabarrena

urtetik indarrean zegoen goranzko joera hautsi zuen apirilean, eta %10 inguru galdu zuen. Ekainetik aurrera, ordea, ekitaldiaren gaineratikoa burtsa-merkatuaren joera korapilotsua izango zela zioten arriskuak desagertu egin ziren. Hilabete horretan hasitako birbalorizazioak etengabe iraun du une honetara arte.


Eurostox indizea %14,17 igo da; eta IBEX indizea, %30,20. Alde hori ulergarria da, indize horretan finantza zein enpresa arloko eragiketetar lotuta dauden dozena erdi balore pilatzen direlako (elektrikak, eraikuntza-enpresak eta bankuak, batez ere). Hori dela eta, IBEX indizearen galera-arriskua handiagoa da eta oso kontuan hartu beharra dago.

Amaitzeko, nabarmendu behar da merkatuei maila horiei eusten badiete, burtsen birbalorizazioek errenta finkoaren emaitza eskasak konpentsatuko dituztela. Horri esker, inflazioaren gaineratik dagoen errentagarritasuna lortu ahal izango da, eta nahikoa onargarria izango da marjina.

Merkatuek aurreikuspenak bete dituzte, errenta aldagarriak izan ezik


Bazkideentzako Bulegoa Interneten. Erretiro-pentsioaren autokalkulua

Oficina en Internet para Socios. Autocálculo Pensión de Jubilación





1. **HASIERA** pantailatik, bazkidearen datuetara sartuko gara (Bulegoa Interneten).

1. Desde la pantalla de **INICIO** accedemos a los datos de Socio (Oficina en Internet).



2. Bazkidearen datuak: **NAN eta Sartzeko Gako Pertsonala.**

2. Datos del Socio: **DNI y Clave Personal de Acceso.**



3. "Datu ekonomikoak" atalean, "Erretiro-prestazioaren autokalkulua" aukeratu dugu.
3. En Datos Económicos seleccionamos "Autocálculo prestación de jubilación".



4. Kalkulurako parametroak zehaztuko ditugu.
4. Determinar los parámetros para el cálculo.

| Sistema de datos (Datos del Sistema) | |
|---|-----------------|
| Buruzko data / Fecha de inscripción | 15/11/2006 |
| Kodea / Código | gizona / Hombre |
| Sexua / Sexo | |
| Identifikazio / Identificación | |
| Adina / Edad | 49,54 |
| Antzina % / % Ingreso | 10,00 |
| Aukerak / Parámetros | |
| <input type="checkbox"/> Lanbidea / Adscripción | 65 |
| <input type="checkbox"/> Egoera Zibila / Estado civil | Soltero |
| <input type="checkbox"/> Lanbidea / Tipo de Emplé | 8 |
| <input type="checkbox"/> Prestazio / Prestación | 2,5 |
| Guztea / Total | |
| <input type="checkbox"/> Data horretan irabazia / Capital a la fecha | 20.477,27 € |
| <input type="checkbox"/> Herentzia luzea / Cuota mensual | 117,20 € |
| <input type="checkbox"/> 100 urteko bilerako bostaria / Renta vitalicia mensual a 65 años | 600,27 € |
| <input type="checkbox"/> Bereizkeria gaur egungo balioa / Renta a valor de hoy | 404,11 € |

5. Autokalkuluaren emaitza, aukeratuak parametroen arabera.

5. Resultado del Autocálculo según los parámetros seleccionados.

Web orriaren bidez, Elkarkidetzako partaideek euren datu pribatuak eskuratu ahal izango dituzte zuzenean. Horretarako, gako pertsonala eta NAN besterik ez dute behar.

3.000tik gora bazkidek euren erabiltzaile-zenbakia eta gakoa erregistratu dituzte, eta web orriaren bidez eskuratu ohi dituzte euren datuak.

Oraindik gako pertsonalik ez baduzu, web orriaren bitartez eskatu dezakezu.

A través de la Web, los participantes de Elkarkidetzaren tienen acceso directo a sus datos privados. Utilizando su clave personal y DNI.

Más de 3.000 socios tienen registrado su Número de Usuario y Clave y acceden de manera habitual a sus datos personales a través de la página Web.

Si todavía no tienes tu Clave Personal, puedes solicitarla por medio de la propia Web.

www.elkarkidetzarenet